

Begarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren AURRETIAZKO KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat berrikuntza ekarri ditu legeak eta erregelamenduak idazteko orduan; besteak beste, jaso egin beharko da zer iritzi duten horri buruz etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.*”

Begarako Udalaren asmoa da Udalak eta bere menpeko erakunde autonomoak emandako dirulaguntzak arautuko dituen ordenantza orokorra onartzea. Ordenantza hori aplikatuko litzateke ordenantza espezifiko baten bitartez arautuko gabeko dirulaguntzei.

Gaur egun, Begarako Udalak ez du udal dirulaguntzak emateko ordenantza orokorrik, eta, beraz, ordenantza hori izateak honako hauek ekarriko lukeela uste da:

- Dirulaguntzak emateko prozesua argitzea eta zehaztea.
- Dirulaguntzak emateko prozesua homogeneizatzea eta bateratzea udal arloetan, honako alderdi hauek zehaztuz: dirulaguntza konkurrenteak edo izendunak eskatzeko prozesua, onuradunen betebeharrak, jasotako dirulaguntzaren justifikazioa...
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoa garatzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean xedatutakoarekin osatuz.
- Ordenantza berriaz gain, dirulaguntzak emateko tramiteak arintzeko prozesuak sustatu eta ezarri nahi dira, hala nola erregistro elektronikoa eskaera aurkezteko modu gisa, interoperabilitate akordioak herritarrek administrazioaren esku dagoen dokumentazioa aurkeztu behar ez izateko, dirulaguntza justifikatzeko tramitea errazteko inprimakiak...

39/2015 Legean zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, udalak erabaki du Begarako Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorraren aurretiko kontsulta publikoa egitea (ordenantza onartu baino lehen).

Horrenbestez, egoki irizten duten herritarrek, erakundeek edo elkarteek parte hartu ahal izango dute, beraien ekarpenak aurkeztuz **2022ko uztailaren 6ra arte**, bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoa erabiliz, postontzi honetara bidalita: idezkaritza@bergara.eus
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuz (San Martin Agirre plaza 1).

ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, udal honi aplikatzekoak, 3.1 b. eta 9.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, eskatzen du dirulaguntzak eman aurretik, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu beharko direla lege horretan ezarritako moduan, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu. Bestalde, Lege horren 17.2 artikulua ezartzen du toki-korporazioen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak hauetako modu batean onartu beharko direla: aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate bakoitzerako ordenantza espezifikoko baten bidez.

Aurreko paragrafoan azaldutakoa betetzeko, Bergarako Udalaren eremuan dirulaguntzak emateko oinarriak arautuko dituen esparru juridiko egokia onartu behar da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrera eta Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretura zein Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea egokituta. Udal Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Orokor honen bidez egingo da hori, eta ordenantza horrek arautuko du dirulaguntzen araubide juridiko orokorra.

ORDENANTZAREN HELBURUAK

Ordenantza honen xedea da, oro har, Bergarako Udalak partikularrei, erakundeei eta herritarren kolektiboari dirulaguntzak emateko aplikatu beharreko araubidea eta prozedura arautzea. Dirulaguntza horien xede izan beharko da udal eskumenak osatzen edo ordeztzen dituzten onura publikoko edo gizarte intereseko edo helburu publikoko jarduerak sustatzea; betiere, araudi hau, hala badagokio, dirulaguntza deialdi bakoitzaren oinarri espezifikokoetan osatzearen kalterik gabe.

EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ ERREGULATZAILEAK

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 17.2 artikulua ezartzen du toki-korporazioen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak hauetako modu batean onartu beharko direla: aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate bakoitzerako ordenantza espezifikoko baten bidez.

Horrek xedatzen du, toki-administrazioaren esparruan, Udalbatzari dagokiola ordenantza onartzea arauak adierazten dituen hiru bideetako baten bidez; izan ere, tresna horiek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio, eta eskuordetu ezina da.

Horrela, baimendutako hiru bideetatik Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra aukeratu da ordenantza espezifikoko baten bitartez arautzen ez diren dirulaguntzetarako. Ordenantza orokor hori aplikagarria izango litzateke Bergara udalak eta bere menpeko erakundeak emandako dirulaguntzei.

Argitaratze-data: 2022/06/15

CONSULTA PREVIA a la aprobación de la Ordenanza General de Subvenciones del
Ayuntamiento de Bergara

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, ha establecido una serie de innovaciones en cuanto a la iniciativa legislativa de las administraciones públicas y la elaboración de reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de la ciudadanía y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Común de las Administraciones Públicas, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

“1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) Los objetivos de la norma.*
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.”*

La intención del Ayuntamiento de Bergara es aprobar una ordenanza general de subvenciones que regulará las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento y por los organismos del mismo dependientes. Dicha ordenanza sería de aplicación a las subvenciones no reguladas mediante una ordenanza específica.

En la actualidad el Ayuntamiento de Bergara no cuenta con una Ordenanza General de concesión Subvenciones municipales; por ello, se considera que disponer de la misma facilitará:

- Clarificar y detallar el proceso de la concesión de subvenciones.
- Homogeneizar y unificar el proceso de concesión de subvenciones entre las diferentes áreas municipales detallando aspectos como el proceso de solicitud de subvenciones concurrentes o nominativas, obligaciones de los beneficiarios, justificación de la subvención recibida... .
- Desarrollar lo dispuesto por la Ley 38/2003 General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, completando con lo dispuesto en la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Además de la nueva ordenanza en proceso de redacción, se pretende fomentar e implantar procesos que agilicen los trámites de concesión de subvenciones, como el registro electrónico como modo de presentación, acuerdos de interoperabilidad para que los ciudadanos no tengan que presentar documentación que obre en poder de la administración, impresos para facilitar el trámite de justificación...

Con el fin de dar cumplimiento al procedimiento establecido en la Ley 39/2015, el Ayuntamiento ha acordado someter a consulta pública previa (con carácter previo a la aprobación de la modificación) la Normativa modificada por la que se regulan las subvenciones a conceder a cargo de los programas gestionados por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Bergara.

Por tanto, la ciudadanía, instituciones y asociaciones que lo estimen oportuno podrán participar presentando sus aportaciones **hasta el 6 de julio de 2022**, por cualquiera de estas dos vías:

- A través de un correo electrónico enviado al buzón idezkaritza@bergara.eus.
- Presentando las sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (plaza San Martín Agirre 1).

NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, de aplicación a este Ayuntamiento, en virtud de lo dispuesto en su art. 3.1 .b. y en su art. 9.2, exige que, con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones, se aprueben las bases reguladoras de concesión en los términos establecidos en dicha Ley, debiendo publicarse en el Diario Oficial correspondiente. Por su parte, el art. 17.2 de dicha Ley establece que las citadas bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales, deben de aprobarse en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una Ordenanza General de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

Para dar cumplimiento a lo expuesto en el párrafo anterior, se hace necesaria la aprobación de un marco jurídico adecuado regulador de las bases de concesión de subvenciones en el ámbito del Ayuntamiento de Bergara, adaptado tanto a la mencionada Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones como al Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el cual se aprueba el Reglamento General de Subvenciones y a la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Ello se llevará a cabo a través de la presente Ordenanza General Reguladora de la Concesión de Subvenciones Municipales, la cual regulará el régimen jurídico general de subvenciones.

OBJETIVOS DE LA MODIFICACIÓN DE LA NORMATIVA

La ordenanza tiene por objeto regular, con carácter general, el régimen y procedimiento aplicable para el otorgamiento de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Bergara a favor de particulares, entidades y colectivos ciudadanos, con destino a la realización de proyectos o actividades que tengan por objeto el fomento de actuaciones de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública, que complementen o suplan las competencias municipales, sin perjuicio de que esta normativa pueda ser completada en las bases específicas que, en su caso, establezcan las convocatorias concretas.

OTRAS OPCIONES REGULATORIAS O NO REGULATORIAS QUE PUEDAN EXISTIR

Tal y como se desprende de la 17.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones, las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

Lo que determina que, en el ámbito de la Administración Local, su aprobación corresponda al Pleno a través de alguno de los tres cauces que señala el precepto, ya que la competencia atribuida para la aprobación de estos instrumentos corresponde al Pleno teniendo las misma carácter indelegable.

De manera, que entre los tres instrumentos permitidos se ha optado por la Ordenanza General de Subvenciones, entendiéndose esta como la mejor opción entre otras causas por ser el mecanismo más ágil y por su vocación de permanencia y participación ciudadana, para todas aquellas subvenciones que no estén reguladas mediante uan ordenanza específica. Dicha ordenanza general sería de aplicación a las subvenciones del Ayuntamiento de Bergara como de los organismos de ella dependientes.

Fecha de publicación: 2022/06/15